

Itsasoko Udaleko gardentasunaren aldeko plana



**Gardentasunaren balioa
Udal-administrazioentzat**

- **Herritarren zerbitzura egotea** da politikaren eta Administrazio Publikoaren **benetako zeregina**, eta herritarrek izan behar dute kudeaketaren ardatz.
- Herritarrek, euren eragiten dieten **erabakiak nola hartzen diren, funts publikoak nola erabakitzen diren** eta Udalak zer **irizpideren arabera jarduten** duen jakiteko aukera izan behar dute.
- Gardentasuna, **herriaren aldarri izateaz gain**, aukera ezin hobe da Udalentzat, besteak beste **konfiantza** sortzeko, **legitimitatea** lortzeko eta **demokrazian sakontzeko**.

Nolako da Udal garden bat?

Nolakoa da Udal garden bat?

Irekia, hurbilekoa eta etikoa.

Gobernu irekiaren printzipioak

1 · Gardentasuna

Informazio publikoa herritarren jabetzako denez, herritarrek **informazio hori erraz eta debalde eskuratzeko modua** izan behar dute. Herritarrek Gobernuaren jarduna ebaluatzeko modua izan dezaten eskaini behar da informazio hori.

Izan ere, **gardentasunik gabe**, ezin da lortu herritarren benetako **parte hartzerik**. Herritarrek ez badute beren **iritzia zentzuz emateko behar beste informaziorik**, euren erantzunak baldintzatuta egongo dira eta ez dute baliorik izango, ez direlako gaiaren benetako errealitatearen jakitun izango.

Gainera, **herritarren ulermen-gaitasuna** aintzat hartu gabe, informazioa bere gordinean aurkezteak urratu egiten du informazio gardena eta **ulergarria izateko herritarren eskubidea**.

Esaterako, sarritan argitaratzen dira datu ekonomiko asko eta asko inolako azalpenik eta argibiderik gabe; datuok, horrela emanda, ez dira batere **erabilgarriak**.

2 · Parte-hartzea

Herritarrek aukera izan behar dute, beren ezagutzetatik abiatuta, **ekarpenak** egiteko udalaren politika publikoei, eta beren **iritziak azaltzeko** politika horiei buruz. Baita, udaletik **zer espero duten eta zer ikuspegi duten adierazteko ere.**

Ardura eta erantzukizuna guztiona izateak indartu egiten du **giza-kohesioa** Udalean, baita Udal-gobernuaren **legitimitate demokratikoa** ere.

Gardentasunaren,
informazio publikoa eskuratzeko bidearen
eta Gobernu Onaren 19/2013 legea

· **Publizitate aktiboa**

Edozein administrazio publikok bere kaxa jarri behar du **informazioa herritarren eskura, modu argi, egituratu eta ulergarrian**, eta neurriak hartu behar ditu argitaratutako informazioa eskuragarria, erraz aurkitzekoa, harekin lan egiteko modukoa eta kalitatezkoa izan dadin.

Udalaren jokabidea ez da izan behar informazioa eskatu eta gero zabaltzea, aurrea hartzea eta eskatu gabe zabaltzea baizik; hau da, **Udalak bere kabuz eta bere ekimenez jarri behar du informazio guztia herritarren eskura.**

- **Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea**

Edozein pertsonak eska dezake Udalen esku dauden eta Udalek beren betebeharren ondorioz egin edo eskuratu izan diren **dokumentuak** ikustea.

- **Derrigorrezko argitalpenak**

Udalak behartuta egongo dira **informazio instituzionala**, **antolamenduaren** gainekoa (6. Art.) eta **informazio ekonomikoa**, **aurrekontuen** gainekoa eta **estatistikoa** (8. Art.) ematen. Horrez gain, Udalak argitara eman beharko dituzte, **garrantzi juridikoko** informazioa, plangintzarena eta ebaluazioarena (7. Art.).

6. Artikulua
Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa

- Zer funtzio betetzen duen.
- Ezarpen-arauak.
- Nola dagoen antolatuta, zer egitura duen.
- Urteko eta urte anitzerako plan eta programak, eta horietan helburu eta jarduera zehatzak finkatzea, helburuok lortzeko zer bitarteko eta tresna erabiliko diren eta zenbat denbora dagoen aurreikusita dena gauzatzeko.
- Ebaluatzea eta aldika argitara ematea zenbatean bete diren eta zer-nolako emaitzak izan dituzten, eta hori guztia neurtzeko eta baloratzeko erabilitako adierazpideak azalduta.

7. Artikulua
Garrantzi juridikoko informazioa

- Jarraibideak, argibideak, hitzarmenak, zirkularrak.
- Arauzko testuak garatzean egindako espedienteen oroitidazki eta txostenak.
- Indarrean dagoen arloko legediak dioenez, tramitatzen diren bitartean denbora tarte batez jendaurreko erakustaldian jarri beharreko dokumentuak.

8. Artikulua
Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa

- Sinatutako kontratuak.
- Sinatutako hitzarmenenen zerrenda.
- Diru-laguntzak eta bestelako laguntza publikoak.
- Aurrekontuak eta urteko kontuak.
- Goi-karguen ordainsariak.
- Goi-karguen jardunaren bateragarritasunaren gaineko ebazpenak.
- Ondasunen eta jardueren urteroko aitorpena.
- Zerbitzu publikoak zenbatean betetzen diren eta zer kalitatekoak diren balioetsi ahal izateko informazio estatistiko nahikoa.

Udalaren web-gunea

Informazio publikoa eskaintzeko Itsasoko Udalaren euskarri nagusia web orri hau da. Horregatik, **Gardentasunari buruzko berariazko sail bat du, non gai honen inguruko informazio guztia kontsultatu ahal izango duzun. Ondoko estekan duzu eskuragarri:**

<http://www.itsaso.eus/eu/gardentasuna>

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko herritarrekiko komunikazio bide nagusia Udalaren webgunea izango bada ere, **online bideak erabiltzeko ohitura ez duten herritarrei informazioa eskuratzeko laguntzen dieten beste bide batzuen aukerak ere indarrean ditugu:**

1. **Postontzi** fisikoak (Udaletxeko sarreran eta Alegiako eliz atarian) eta Udalaren **iragarki-taulak**
2. **Whatsapp** erabiliz sarbidea eskatu dutenekin eta **posta elektronikoa**, eredu honen alde egin dutenekin
3. Etxez etxe **esku-orrien** bidezko buzzoneoen bidez
4. Herri Batzar, Udal-batzorde bilera eta Osoko bilkuren gai-ordenen eta **akten zabalkundea** herritar guztiengana
5. Ekarpen, proposamen eta erabakietan **parte-hartzeko aukera zuzena** herritarrentzat, aipatutako bilkura guztietan



Gardentasunaren aldeko plana osatzeko iturriak:

Gardentasuneranzko bide orria. Udal gardenago bat eraikitzeke estrategia eta tresnak.

http://www.eudel.eus/destacados/transparencia/files/2013/07/gardentasuna_bide_orria.pdf

Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko eskuliburua.

<http://www.eudel.eus/destacados/transparencia/files/2014/11/Udal-Gardentasuna-Eskuliburua.pdf>

Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeko bidearen eta Gobernu Onaren legea.

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12887-E.pdf